Hartara, kontaezinak dira aukerak. Ikastaroak kudeatzeko berariaz diseinaturiko plataformek (Moodle, 3D gela, etab.) eta beste baliabide batzuek, hala nola, Dipity, Glogster, Voki, Twiter... eta horrelakoek ulertezinak dirudite hasiberriak ez direnendako. Hori hala izanik ere, ikaskuntzarako aukera asko ematen dute eta hori aski garbi antzematen da haietara hurbiltze soilarekin.




Beraz, baliabide berri hauetara lehen aldiz hurbiltzearekin batera begi bistan gelditzen da tradizioz ikasmaterial modura erabili diren metodoen etorkizuna Tuvalurena baino zalantzagarriagoa dela. Eta are garrantzitsuagoa dena: ez dira nahikoa XXI. mendeko erronkei aurre egiteko gai izan nahi duen herritar batek dituen prestakuntza itxaropenetarako.




PISA 2009ko emaitzak

*Ángel Sanz*

Hitzaldiak

Irakurmena: helburuak eta laguntzak

*Felipe Zayas*



## PISA 2009ko emaitzak
*Ángel Sanz*

PISA probak irakurketa hobetzeko tresna paregabea dira. Saio hau baliatu nahi dugu 2009ko proban, irakurketaren ulermenean, lortu diren emaitzak jendaurrean agertzeko estreinakoz. ■






## Irakurmena: helburuak eta laguntzak
*Felipe Zayas*

Iraultza teknologikoan murgildurik gaude eta horrek tresna berriak jartzen ditu irakasleen eskura, irakasteko metodoak berritu ditzaten. Gazteek eta nerabeek beren eguneroko azturetan bereganatu eta txertatzen dituzten moduan, irakasleek ere balia ditzakete eguneroko lana aberasteko. ▶




Ekitaldi aretoa
Hezkuntza Departamentua
Santo Domingo kalea, zk.g.
Iruña
2010eko abenduaren 16a
17:00etan

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua